

Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta,
2-3 urteko seme-alabak dituzten 8.000 familiari zuzenduko zaie kanpaina

BIZKAIKO 38 UDALERRIK EUSKARAZKO EREDUEN ALDEKO INFORMAZIO KANPAINA ABIAN JARRI DUTE

Bizkaiko 38 udalerrik parte hartuko dute 2015-2016 *aurrematrikulazio kanpainan* umeak lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Orain dela sei urtetik hona *D bitamina, Aberastu bere heziketa!* egitasmoa abian jarri izan da Bizkaiko hainbat udalerritan eta aurten ere Bizkaiko 23 udalerrik eta 2 mankomunitatek elkarlanean burutu dute ekimena.

Saso desberdinetan banatuko da aipatutako informazio-kanpaina, udalerrri bakoitzak euren urteko plangintzaren barruan, baina betiere 2-3 urteko umeen eskolatze-aldia hasi baino lehenago, gurasoek bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara teknikarien bilguneak, koordinatu duen ekimen honetan guztira 8.000 liburuxka inguru banatuko dira kanpainan parte hartu duten udalerrietako gurasoen artean.

Aurten ere, kanpainari buruzko iritzia jasotzeko inkesta bidaliko zaie hartzaileei. Inkesta horren bidez, kanpainari buruzko iritzia emateaz gain, gurasoek euren kezka eta zalantzak ere helarazi ahal izango dizkiete euskara zerbitzuetako arduradunei eta inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.



Parte hartzaileak

Bizkaiko **23 udal** eta **2 mankomunitate**. Guztira, honako 38 udal hauek:

Abanto Zierbena, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berango, Bilbao, **Enkarterriko Mankomunitatea**, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Laukiz, Leioa, Maruri-Jatabe, Mungia, Ortuella, Santurtzi, Sestao, **Txorierriko Mankomunitatea**, Urduña, Zaldibar eta Zierbena.

Kanpainaren edukia

Kanpainaren osagarri nagusiak bost dira:

- Udaleko ordezkariaren batek sinatutako **gutuna**, euskarazko ereduetan ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.
- **Inkesta**. Gurasoek kanpainari buruz duten iritzia eta gaiaren inguruan dituzten kezkek eta zalantzak jaso ahal izateko. Inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.
- D eredia aukeratzeko arrazoiak azaltzen dituen **triptikoa**.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako **oparia** (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).
- Kanpainako euskarri guztiak sartzeko **gutunazala**.

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 8.000 familia izango dira.

